HAL
open science

”Leturiaren egunkari ezkutua” (1957) haustura bat euskal narratiban ?

Jean Jon, J. Casenave

To cite this version:

Jean Jon, J. Casenave. ”Leturiaren egunkari ezkutua” (1957) haustura bat euskal narratiban ?. Euskera. Euskaltziandia’ren lan eta agiriak. Trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca. Travaux et actes de l’Academie de la Langue Basque, 2007, 52., 2, pp.617-626. artxibo-00425211

HAL Id: artxibo-00425211

https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00425211v1

Submitted on 20 Oct 2009

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L’archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d’enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA (1957)

HAUSTURA BAT EUSKAL NARRATIBAN ?

Leturia mugarri, *Leturia* haustura egile, *Leturia* modernitatearen aintzindari XX-garren mendeko literaturan. Liburua argitaratuz geroz iragan diren berrogeitahamar urte hauetan tematika horiek behin eta berriro erabiliak izan dira, aurrera ikusiko dugun bezala. Abiapundua, dudarik gabe, liburuan berean aurkitzen dugu, Koldo Mitxelenak 1957-an *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriaren lehen argitalpenarentzat paratu zuen aintzin-solasean, hain zuzen. Koldo Mitxelenaz gain, orduko kritikari ohartuenek (Etxaniz, Ibinagabeitia, Villasante, Orixe) liburuaren alde berritzailea azpimarratu zuten haiek ere, haren gaitziesteko edo berdin, nola gerta, haren goraipatzeko. Europako beste kulturetan guziz erabilia da "hausturaren konzeptua", aspaldidanik eta anitz eremutan, hala nola historia eta literaturaren sailetan. Bizkitartean, ez da asko baliatua izan Euskal Herrian *Leturia* arte. Kasu hontan, hastetik beretik agertzen dira haustura eta berriztapenaren gaiak eta orduz geroz, Euskal literaturaren historio egile guziek (Sarasola, Torrealdai, Urkizu, Olaziregi, Aldekoa[1], etb.) mugarriaren irudia erabili dute *Leturia*ren ekarpena aiptazerakoan. Ondoko lerroetan, "haustura" eta *Leturia* nola izan ziren parezkatuak eta elkarri josiak aztertuko dugu.

1. "Hausturaren" finkatze prosezua :

1.1. Hausturaren sortzaileak eta lehen hedatzaileak :

Sartzean aipatu bezala, erran daiteke haste hastetik erabilia izan dela "hausturaren" konzeptua *Leturia*rentzat. Liburua agertu baino lehen ere atxeman zitekeen gaiaren lehen agerraldia. *Euzko-Gogoa* aldizkariak nobela berriaren zati bat plazaratu zuen argitaratu baino lehen, "Negu" deitzen den atalaren azken zatia zehazki erran beharrez. Aurretik dastatzera eman zen pasarte hori, "Uztaila eta Daguenila"-ko zenbakian (1956) agertu zen.

[1] Historiolari horien erreferentziak artikuluaren barruan aurkitzen dira.

Sartze gisa, aldizkariaren taldeko norbaitek[2] aurkezpen labur bat egiten dio hamar lerrotan. Eta horra –menturaz- "haustura"-ren lehen aipamen zehatza : " Azalez ta mamiz orrelakorik eztugu irakurri euskaraz lenago."

Harekin batean, modernitatearen gaia erakartzen du aipatzaileak : "Orain-oraingo kezkaz blai-blai egindako eleberri gotorra dugu, ta oraingo gazteen biotzak zulatzen ditun minez josia.". Beraz, literatura saio berri eta berritzaile gisa iragarria da *Leturia* kaleratzeko unean dagoelarik.

Hausturari buruzko bigarren oharra lehen argitalpen hortan aurkitzen da. Liburuaren hitzaurre luzean, Koldo Mintxelenak honela aurkezten du eleberriaren ekarpena : "dena delako lehenik, eta mugarri baten antzera lur berriaren seinalea eta ezaugarria dugulako gero."

Eta ondoko orrialdeetan, bide beretik segituz hausturaren gaia errepikatzen du molde ezberdin batzuen bitartez *Leturiaren egunkari ezkutua*ren berritasuna azpimarratuz:
"*Ez dut esango Egunkari honen azken zatia baino ederragorik ez dela ondu euskaraz – belles-lettres direlakoetatik agitz urruti gabiltza hemen – ezta ere gai garaigorik ez dela ukitu. Baina, baldin neure iritzia estalkirik gabe agertu behar badut, ez dut uste inoiz gure hizkuntzan entzun denik horrelako hitz larririk, horren zinezko aitorrik, horrenbesteko karraxi sarkorrik.*"

1.2. Hausturaren hedatzaileak :

Liburua argitaratu ondoan haren aipatzen ari izan diren kritikariak gainez gain izendatzeko eta Jon Bilbaoren bibliografia segituz, 1957-ko maiatza eta ekaineko *Euzko gogoa* aldizkariaren zenbakian aurkitzen diren artikuluekin abiatu behar da. Biak batean heldu dira, lehena Andima Ibinagabeitiaren lumatik eta bigarrena, Nemesio Etxaniz-en eskutik. Mitxelenaren ildo beretik dator Ibinagabeitia, idazlanaren ez ohizkotasuna eta modernitatea azpimarratzen dituelarik :

"*Liburu berria benetan gure elertian, oraintasunez betea, idazle azkar baten arnaz beroaz oretua ta pizkortua*."

Jarraian, Nemesio Etxaniz-ek , modernitatearen gaiaz gain, "mugarria"-rena erabiltzen du liburuaren laburpena egin ondoan :

[2] Pentsa daiteke Koldo Mitxelena bera izan zitekeela bainan hori ikertzekoa da oraindik.

“*Euskaraz etzan onelako gairik aztartu egundaño. Au degu pozgarri. Gai berriak lantzea ; kezka berriak arrotzea nai genduke gure izkuntzaren baratzan, ta auxe egiten digu txalogarriena Txilardegi gazteak*.”.

Eta *Egan* aldizkarian ere, iraila-abendoko alean hain zuzen, L. Villasantek antzeko zerbait idazten du, liburuak dakarren ikuspegi berria erakutsi nahiz :

“*Bai gogoz irentsi eta zurrupatu ere ! Arriturik gelditu nintzan oso ! Arrazoi du Mitxelena jaunak, itzaurrean dionaz, alegia : « eztugula sekula Leturiarena bezalako ibillaldirik egin gogo-bideetan barrena.* »

1.3. Aipatzaileak eztabaidan : aldekoak.

“Haustura” deitzen dugun konzeptuaren arrakasta ez da bakarrik sortzaile eta hedatzaileen lanetik etortzen. Liburuaren inguruan izan diren eztabaidetatik ere jin zitzaion. Bakakigu maiz eztabaida gauza ona dela obra baten omenaren finkatzeko. Berez probokazio itxura bazuen *Leturiak* bainan, orduko iturrien arabera, aurkako handirik ez du sortu lehen denbora batean. Aldiz, haren ondotik hiru urte berantago,Txillardegik argitaratu zuen bigarren liburuak, *Peru Leartzako* deitzen den obrak, polemika ederra sortu zuen. Gehitu behar da, bai tematikaren aldetik, baita ere hizkuntza ereduaren aldetik, biak ildo beretik heldu zirela eta, dudarik gabe, horrela agertu zitzaizkien orduko aipatzaileei. Eztabaida guzietan bezala, aldekoak ukan zituen liburuak : horietan, aipa dezagun hitzaurrearen egilea. Adituek diotenez, Txillardegi bera zen. Aurkezleak bi liburuak (*Leturiaren egunkari ezkutua* eta *Peru Leartzako*) batera ekartzen zituen bere solasetan eta euskal kulturaren orduko egoeran bihurgune bat bezala aurkezten zituen. Berritze hori, tematika mailan oinarritzen zuen batez ere, jende gaztearen kezken aldetik, hots belaunaldien arteko borroka mailan :

> « *Berriz ere biotzaren ikara, arimaren larri-mina, gaurko gizonaren barne-urduritasuna, darabilkigu Txillardegi-k bere bigarren liburu ontan*. »

1.4. Orixe eztabaidan partaide : Txillardegiren aurka.

Peru Leartzako eleberriaren aipatzaile kopuru murritzaren baitan, kontrakoak ere agertu ziren eta bat, ez nola nahikoa, Orixe bera, orduko Euskal Letretan ospe gehiena zuen idazlea. Funtsean, Eztabaida on baten egiteko, aurkako ona behar da. Eta, hain zuzen, orduko aurkako hoberena altxatu zen emaitza literario berri horien kontra. Preseski Mitxelenak eta

Txillardegik begitan zuten hura bera, Orixe. J. Azurmendik lan kritiko bikoitz[3] guziz sakon batean ongi erakutsi zuen bezala, nahi ala ez, Orixe-ren figura hor zegoen, tente-potente. Azurmendik berrikitan erripikatu du orduko idazle gazteek miresten zutela Orixe-ren eredua. Aldi berean, garbi zeukaten eredu berri eta biziago baten sar arazteko euskal letretara, Orixe[4] zela lurrera botatu behar zuten harresia edo errotik kendu behar zuten monumentoa.

Orixe-ren ustez, Peru Leartza eta Joseba Leturia, "Europearrak" ziren, hots kanpoko gaitz gaistoenek kutsatu zituzten gizon gazte biziotuak. Orixe, postura tradizionalistaren aldeko idazle ospetsuena zen dudarik gabe eta, 1960-an, *Peru Leartzako* argitaratu zen urte berean, *Yakin* aldizkarian, progresista gazteen aldizkari berrian, eraso bortitza zuzendu zion Txillard[5]egiri, doinu polemikoa erabiliz : «*Leartzaren filosofia ustela ta merkea da : novela tzarretan ikasia.* » Iturrietan, Bergson eta Unamuno aipatzen ditu eta, nahiz ez dituen izendatzen, pentsa daiteke, "nobela tzar" horiek frantses eleberri existentzialistak direla, Sartre eta Camus-enak batez ere, eskandaloa sortu baitzuten bigarren gerla ondoko garaian. Eta jarraitzen du azpimarratuz Txillardegi idazle gaztearen eragina gazteen artean, berak sotengatzen duen « euskaldun fededun » tradizionalistaren ereduaren kaltetan hedatzen ari den eragin ezkorra :

« *Barrenak ez dit agintzen ixilik egotea, liburu onek gaurko gazte-jendearen artean egin dezaken kaltzearengatik.* »

Hain zuzen, artikuluaren beste zati batean, eredu berri horren aurka garbiki agertzen du bere burua. «*Leartza, liburu ontako giza nagusia, europear biurtu zaigu, izurri gaizto batean, beintzat.*». Joxe Azurmendi-k, azaltzen digunez, "europear" erran moldeak "moderno"erran nahi du, hots kanpoko eragina duena, beraz, euskal eredu klasikoa arriskutan ezartzen duena. Garbi da beraz, bi ereduen arteko borrokan parte hartzen zuela Txillardegiren orduko literaturak, berritzaile eta haustura egile gisa.

2. *Leturia*, objetu « extra literario gisa » :

Orain arte erabili ditugun solasek argi ta garbi erakusten dute kontestu berezi batean agertzen dela *Leturia*, borroka eta eztabaida une batean hain zuzen. Beraz, bere literatura mailako erran nahiaz gain, badu zer erran ere "objetu extra literario" bezala.

[3] J. Azurmendi, *Zer dugu Orixe-ren kontra* ? (1976), *Zer dugu Orixe-ren alde* ?, (1977), Jakin argitaletxea.
[4] J. Azurmendi, "Hizkuntz ereduaren eztabaida" , Jakin 158, 2007 : "Orixe , bere akats guziekin, sekulako idazlea zen."

2.1.Mitxelenaren hitzaurrea :

Ikus dezagun zer izan den *Leturia*-ren funtzioa literaturaren eremutik kanpo. Fama handiko euskalzale bat badu aita besoetako gisa, Koldo Mitxelenak egiten baitio hitzaurrea. Orduko borroka giroan, Mitxelena-k maisuki erabiltzen du Txillardegik idazten duen literatur lana. Hori erratean ez dugu aditzera eman nahi Txillardegi erabili duenik tresna baten gisa. Bainan, onartu behar da Mitxelenari oso ongi etorri zitzaiola Txillardegik egin zion proposamena. Orroit gaitezen, *Leturia*-ren bigarren argitalpenean[6] Txillardegik berak kondatzen duela itzulpen bat egin gogo zuela hastapenean, K. Hamsum-en *Pan* eleberriarena. Proposamen horrekin joan zen Mitxelenaren ikustera, aholku bila. Mitxelenak, berriz, sorkuntza lan bat eskatu zion itzulpenaren orde :

"*-Ez, ez –erantzun zidan brauki Mitxelenak, inolaz ere ez ! Zeure buruz asmatu behar duzu nobela bat ; eta horixe bai izkiriatu. Ez zazu, beraz, Hamsum itzul*."

Sorkuntza eskatzerakoan, beste zerbait bazuen buruan Mitxelenak eta senditu zukeen Txillardegik bazuela kemen aski eginkizun ausart horren obratzeko. Hizkuntza mailako ereduaren berriztapena aiseago pasa zitekeen tematika mailako aldaketa handi baten bitartez. Hain zuzen, lehen argitalpenaren hitzaurrean Mitxelenak liburu berriaren ekarpen bikoitz hori azpimarratzen du erranez, haren ustez, liburuak bi eredu joiten dituela bekoz beko. Alde batetik, gizarte mailako eredu bat erasotzen du, ordu arteko literaturaren bitartez garatu den "euskal eredu tradizionala" labur biltzeko :

"*Mendi tontorretara igotzearekin ere, Domingo Agirre-k nahi zuenez, ez dugu deus askorik aurreratuko*."

Leturiaren eginkari ezkutua, "Sarrera hitz batzu", L. Michelena, 1957.

Liburuari esker, ideia berriak eta kanpoko ikus moldeak sarrarazten ditu Txillardegik eta ikuspegien aniztasuna bultzatzen du orduko euskal kultura monolitikoan. Bestaldetik, hizkuntza mailako eredu "klasikoa" erasotzen du : "euskara garbia / euskara mordoiloa"[7], orduko eztabaida bizi-bizian ximista bezala sartu zen Txillardegi bere liburuarekin, hizkuntza mailako ereduen aniztasunak ekar zezakeen aberastasuna frogatuz.

2.2. Txillardegi eta « euskara berria »-ren garapena

Gazte gaztea izanik ere, Txillardegi ez zen nornahi euskalzaleen mundutxo ttipian. Euskaldun berria zen bainan gizon guziz jantzia hizkuntza mailan eta 1956-etik goiti, euskarari buruzko eztabaida teknikoetan parte hartu zuen, batez ere Euskaltzaindiaren

[6] *Leturiaren egunkari ezkutua*, bigarren argitalpena, *Leopoldo Zugaza* argitaletxea, 1977.
[7] J. Azurmendi, « Hizkuntz ereduaren eztabaida », Jakin 158, 2007.

inguruan izan ziren solasaldietan. 2004-ean argitaratu duen liburu batean (*Euskararen aldeko borroka*)[8] euskarari buruzko artikuluak bildu ditu. Izen burutik beretik ageri da borroka bat izan dela hizkuntzari buruzko ezatabaida hura. Txillardegik, hitzaurrean kondatzen du « euskararen eredu berri baten garapenaren alde » ari izan dela lanean hastapenetik. Huna zer dion, *Leturia*ren garaiko artikulu bati buruz :

« *Lenengotzat, 1956an agertutako "Ez bat ez beste" deritzon artikulua hautatu dut (Egan aldizkarian). Azpititulu hau baitzekarren garbi : Euskeraren auziari buruz. Ene ustez ongi samar hautematen da garbizaleek gramatikaren alorrean ere hizkera asmatzeko zekarten gogo amorratua.* »

Hitz horiek garbi erakusten dute nor zituen aurkakoak eta zeren ondotik zebilen. Orduko kalapiten lekukotasun bikaina aurkitzen dugu ere berrikitan agertua den *Jakin* aldizkariaren ale batean (*Jakin* 158, 2007). Gerla ondoko giroaren argitzeko, J. Azurmendik eta J. Intxaustik funtsezko xehetasunak ekartzen dizkigute bi artikulutan. Azurmendi-ren lumatik jakiten dugu Mitxelenak eta Txillardegik zer funtzio ematen zitoen literaturari kultura mailako borrokan eta hizkuntzari buruzko eztabaida bizietan :

« *Mitxelena edo Txillardegiren mordoiloaren defentsak lehen-lehenik « kalekoa » nahi zuten literaturari begiratzen zion : mordoiloa, hor, beldur izan behar ez zaion zerbait zen* ».

Euskara idatziaren eredu klasikoa elitistegia zeukaten, eguneroko hizkuntzatik apartegia eta ezin irakurria jende gehienentzat. Gainera, haren bitartez egiten zen literatura, erdi asmatutako "baserriko euskal mundu" ideal batean oinarritua zen, Euskaldunen gehiengoa kalean bizi zelarik, Europako gizarte modernoaren baitan. Beraz, premia handikoa zeukaten literatura berri baten eragina eredu tradizionalekin hausturaren markatzeko.

2.3. J. Azurmendi / J. Inxausti : lekukotasunak :

Azurmendi eta Intxausti-ren artikulueri esker ongi dakusagu zer zen jokoan orduko eztabaidetan, baita ere inplizitoki, garai hartako literatur idazlan batean. Huna zer dion hortaz J. Azurmendik :

[8] Txillardegi, *Euskararen aldeko borroka*, Elkar, 2004.

«*Bataila gurutzeala izan da gerraosteko norabideentzat. Ez baitzen eztabaida linguistikoa bakarrik. Ideal tradizional ala modernoagoak, mentalitateak, atxikimendu politikoen moduak, abertzaletasunaren zentzua oro har eta kulturaren kontzeptu osoa besarkatzen eta konprometitzen zituen nolabait, esan bezala.*»

Orduko giroari buruz, beste ezaugarri batzu eman daitezke. *Yakin* aldizkarian (*Yakin* 10, 1959), Orixe-ri egiten dion erantzunean, J. Intxausti-k argi eta garbi finkatzen du zein irakurlego kategoria eta zer euskara mota behar dituen gogoan ukan orduko idazle garaikideak, "belaunaldi berriaren" arabera :

" "*Euskara garbiz...esan ditezke eunetik laurogei ta emezortzi". Egi osoa noski. Baiña euskera errez ta ulergarria izango ote da orrelako ori ? Zorionerako edo zoritxarrez izango da ; baiña idaztean, ezin ditut aaztu gure errietako karreradun esukal-ikastolagabeak. Auek irabazi nai nituzke nik iltzear daukagun euskararentzat, erri xearen aurrean gure izkuntzari ospe onik eman dezaioten. Ogi-bidetzat aukeratu dituzten jakintzetan ikasiak ; baiña euskalariak ez diran auentzat idaztzi bear genuke, batez ere.".*

3. Idazlearen aukerak eta postura :

3.1. *Leturia*, « objeto literario » bat.

Leturia-ren bitartez eramaten zituen helburuen argitzeko kontu handitan har ditzagun Txillardegik Intxausti-ri igorritako gutun batean finkatzen dituen sorkuntzarako baldintzak :

« *Euskaldunentzat idatzi bear dugu…* »

« *Beraz, bi gauza bear ditugu derrigor :*

1. ZERBAIT esan bearra (…), zerbait unibersalik alegia, arimari edo gizonari dagokion zerbait egiazkorik eta mamitsurik (…)

2. EUSKARAZ (…) esan, eta ez guk asmatutako sasi izkuntza zoro batez. Orra, nere ustez, bi baldintzak. »

« *Nik nai nuken euskara au da : euskara-esperanto*. »

Txillardegi idazle gazteak bi pundu nagusitan banatzen du bere programa. Biak era bat berriak dira orduko euskal literaturaren ingurugiroari begira. Lehen punduak, alegia deus ez, maila oso gora batean finkatzen du idazlearen lehen saioa. Alde batetik, denek ulert eta sendi dezaketen zerbait idatzi nahi du ; bainan, dudarik gabe, "unibertsala" den maila horren erakustea, bakarrik munduan izan diren obra nagusiek lortua dute. Beraz, munduan dauden liburu gorenak ditu eredutzat hartzen.

Bigarren punduan, hizkuntzari buruzkoan, garbizaleak ditu begitan. Intxaustik *Yakin* aldizkarian doi bat berantago (1959) idatzi zuen bezala, Txillardegik euskara berria eta modernoa nahi zuen, bainan batez ere sinplea, denek ulertzeko gisan. Gorago ikusi dugun garai hartako euskarazko ereduen arteko "borroka" gogorrean sartzen da Txillardegiren oharra. Halarik ere, onartu behar da narratiba mailan, eredu berri, soil eta hastetik buru aski koherentea eraiki duela bere lehen liburuan berean. Aurkakoek, aldekoek bezain zintzoki, pundu hori onesten dute. Eredu berri baten sortzea aurrerapen handia da.

3.2. *Leturia* kanpokoen gerizapean :

Sorkuntzari begira, ideia argiak ditu Txillardegik eta ondorioz, *Leturia-n* erakustera ematen dituen aukerak ere guziz garbiak dira. Aurreko atalean agertzen diren bi punduetarik lehena baizik ez dugu barnatuko. Aipa dezagun beraz orotarako gogo hori edo "unibertsalismo"-rentzat duen interesa.Gorago ikusten genuen gai unibertsalak erabili nahi zituela. Hortarako, nola egin eta nola idatz ez badira munduko obra nagusiak ispilu eta eredu bezala erabiltzen ? Hortaz ohartzeko, kontutan har ditzakegu liburura erakartzen dituen erreferentziak, Joseba Leturia egunkari egilearen lumapean, hain zuzen. Joera unibertsala du Txillardegik, bere pertsonai nagusiaren kultura filosofiko-literarioa agerian emaiten duelarik : idazle unibertsalak, aspaldikoak (Homero, Shakespeare), modernoak eta garaikideak (Kafka, Gide, Valéry, etb.) ; filosofo guztiz ezagunak, aintzin arokoak (Buddha, Euclides) modernoak eta garaikideak (Unamuno, adibidez). Bestalde, aurrera ematen duen kultura estetikoa ere orotarikoa da : musikariak (Cl. Debussy), margolariak (P. Gauguin), besteak beste munduko handienetan izan dira, dudarik gabe.

Hots, kultura zabal bat ematen dio Joseba Leturiari Txillardegik[9] : modernoa, baita ere garaikidea, eta unibertsala, nahiz Europa mailakoa den batez ere. Bainan, oroit gaitezen, gerla ondoko urte haien giro intelektualean, eredu "unibertsaltzat" hartua zela orduko kultura europearra, dekolonozazio prosezua hastekoa baitzen oraindik. Zer nahi gisaz, ezaugarri horiek aintzinatzean haustura bat markatzen zuen Txillardegik orduko euskal literatura gehientsuan agertzen ziren tokian tokiko erreferentziekin, Jon Mirande bezalako idazle baztertu batzu salbuespentzat hartzen badira. Segur, Orixe, Jokin Zaitegi eta Andima Ibinagabeitia bezalako idazleengan maila eta ospe handiko autore asko agertzen zen, bainan gehienak klasikoak ziren, mundu greko-latinoari lotuak (Agustin, Platon,

[9] Liburuan dauden erreferentziak xeheki bilduak izan dira *Leturia*-ri buruz egin izan den azterketa bakarretarik batean : *Txillardegi eta Saizarbitoriaren nobelagintza*, I.Sarasola, 1975.

Virgilio eta Ovidius, etb.). Beraz, Txillardegik *Leturia*-n argitan ematen duen kultura, ez da batere ohizkoa orduko euskal letretan.

3.3. Garai bereko beste idazlanak :

Hautu horiek ez dira kasualitatez eginak edo liburu baten girotzeko doi doia. Txillardegik, *Leturia*-tik kanpo ere erakusten ditu aukera horiek, batez ere garai berean argitaratzen dituen artikulu eta idazlanetan. Bospasei lan badira orotara, *Egan* eta *Euzko gogoa* aldizkarietan publikatuak.

Egan aldizkarian :

- 1957-ean, sorkuntza lan batzu aurkeztu zituen : *Orangutanen ugartea* ipuina adibidez, zientzia-fikzioa eta fantastikoaren artean dagoena ; biak genero "deitoragarriak" Orixerentzat, hain segur. Bainan azterketa eta saiakera sailetan argitaratutako lanetan zituen batez ere orduko euskal kulturan kaltekor eta kutsakor bezala ager zitezkeen erreferentziak erabiltzen, hala nola *Unamuno eragille* (1957) deitu idazlanean : « Egiazko existentzialista degu. »

1960-ean, Lekuko *bikain bat il da,* artikulu bat Camus hil berriaren oheretan ; zeinetan Beauvoir, Camus, Gide, Heideger, Sartre, eta beste idazle batzu xeheki aipatzen baititu.

Euzko Gogoa aldizkarian :

1957 : « Taupadak » deitu artikulua, adibidez : hartan ere, Camus, Gide, Sartre, eta maila bereko idazle kanpotarren erreferentziak erabiltzen .

Camus-en ohoretan idatzi zuen artikuluan, bere burua aurkeztun zuen esixtentzialisten irakurle « goiztiar » bezala (« goiztiar » euskal eremuan noski), anekdota ttipi baten bidez :

« 1951 urtean, ni Bilbo'n nengoelarik, oso ots andia atera zuen Camus'en liburu berri batek : «Jaikitako Gizona»[10]*. Eta, nere aitari –Paris'era baitzijoan egun aietan-ekartzeko eskatu nion. Paris'ko liburu-denda batean sartu omen zan ba nere aita, saio famatu horren eskean ; eta dendariak galdetu omen zion :*

-Eta, zeinatzako nai duzu ?

Neure semearentzat.

Zenbat urte ditu ?

[10] *L'Homme révolté,* Albert Camus, 1951.

Ogei ta bi.

Ba… Etzenioke eraman bear… Badakizu : Camus ori esistentzialista zoro eta lizun oietako bat da ; danetan bildurgarriena omen da. Beraz, zeuk ikus. »

Lekuko bikain bat il da, Txillardegi, *Egan*, 1960

Besteak beste, omen handiko pentsalari eta idazle progresistak dira orduan aipatu zituenak. Bainan, denbora berean, gogoratu behar da horien artean, existentzialistak bazirela (Camus adibidez) eta garai hartan « erre usaina » zuten beste izen batzu, hala nola André Gide. Eta, noski horiek zituen gogoan Orixek idazten zuelarik Peru Leartzak (eta Joseba Leturiak berdin) irakurketa gaistoak eta kutsakorrak zituela.

Konklusio gisa : Euskal literaturaren historiagrafiari begira :

Aztertu dugun « haustura »-ren konzeptoa *Leturia*-ri lotua da haste hastetik. Ordutik hona, behin eta berriro aipatua izan da liburua aurkezterakoan, euskal literaturaren aztertzaileen artean. Ibon Sarasola[11], J.M. Torrealdai[12], Iñaki Aldekoa[13], besteak beste, bat datoz hausturaren gaiari buruz. Kritikari horietan, nork berak, alderdi bat edo beste azpimarratuko du berritasunen artean : Jon Kortazar[14]-ek kontaketaren berriztapena aipatzen du *Euskal Literatura XX-garren mendean* liburuan ; Mari-Jo Olaziregik[15] bere aldetik "bibliotekaren presentzia" Leturiaren erreferentzietan eta, K. Otegi-ren[16] ekarpena kontutan hartuz, Leturia protagonistaren alde gatazkatsua. Oro har, denek xehetasun eta berezitasunen artean, aurreko idazlan literarioekin *Leturia*-k ekarri zuen aldaketa nabaritzen dute.

"Haustura"-ren konzeptua guztiz erabilia da mendebaldeko kulturetan, XIX-garren mendetik hona. Literaturaren historian eragin handia badu hausturak belaunaldien arteko ezberdintasuna edo mugimendu literarioen arteko bereizketaren erakusteko. Sortzaileek berek gogotik baliatzen dute tematika hori, nahi dutelarik beren sorkuntza mota edo beren teorien alde berria preziarazi. Adibide bat ematekotan, aipa dezagun XX-garren mendeko bi gerla nagusien artean Pariseko Surrealistek apailatu zituzten eskandalo guziz aipatuak. "Avant-garde" bezala agertu nahi dutenek hautsi behar dute aurrekoekin, "autoritate"-ekin, arrabots handiko ekitaldi eskandalagarriak antolatuz, manifestoak eta panfletoak argitaratuz. Horrela,

[11] Ibon Sarasola, *Euskal literaturaren historia*, Lur, 1971.
[12] J.M. Torrealdai, *Euskal idazleak gaur*, Jakin, 1977. *Euskal kultura gaur*, Jakin, 1997.
[13] Iñaki Aldekoa, *Mendebaldea eta narraziogintza*, Erein, 1998.
[14] Jon Kortazar, *Euskal Literatura XX-garren mendean*, Prames, 2003.
[15] M.J. Olaziregi, *Euskal eleberriaren historia*, Labayru, 2002
[16] Karlos Otegi, *Pertsonaia euskal nobelagintzan*, Mensajero, 1976.

berritzearen eragile bezala agertzen dira “autoproklamazio” horren bitartez, eta beren errolean konfirmaturik aurkitzen dira, “idazle zahar konsagratu“ erasotuek ihardesten dutelarik.

Europako kultura garatuetan arrunta izanik ere, “hausturaren gaia” ez zen batere erabilia bigarren gerla osteko euskal kulturan eta are gutiago literaturaren eremuan. Hausturari kontra jartzen ohi zaion konzeptoari, jarraipenari, ematen zitzaion lehentasuna Euskaldunen artean. *Leturiaren egunkari ezkutua* aintzindari izan da, sail hortan ere, euskal literaturaren historiografiari begira.